

SORGINAK XIV

Huna haurrak non heldu diren! Itsusi txarrak!...

Hirriz sartzen dire Kattalin eta bertzeak.

IX

XOBADINA ETA HAUR GUZIAK

KATTALINEK.—Horra, ama, horra lana guk egina. Segitu izan ditugu etxeraino, Mariaren etxeraino, ezen gaur elgarrekin behar omen dute.

Mainaz josi bezala ditugu; xoko guziak ikertu ditugu, ohe-azpiak eta oro, heien nonbait-han sosegatzeko. Nonbait-han, erran dut; ezen on da izialdura pitta batekin lokhart ditezten gaur oraino, batre lokhartzen balinbadira segurik...

XOBADINAK.—Gaixtoa!

OROK.—Oh! Xobadina!

XOBADINAK.—(Erdi birriz:) Gaixtoak!

GUZIEK.—Gaixtoak!

XOBADINAK.—Bai gaixtoak, oro.

LUIXAK.—Ah! baia? Huna orai zure aldi, ama, axtian Mariaren eta Xanetaren aldi bezala! (Orok elgarri emaiten dituzte eskuak eta Xobadinaren inguruan, jauzika emaiten dire errepi-kan¹⁹.)

Harat hunat badoa gure ama ona,

Erlea kofoinen²⁰ iduria, dena!

Oi zer ama Jainkoak deraukun emana!

Erregina batentzat sal ez gindiona!

Tra la la, la la ra, tra la la, la la ra...

XOBADINAK.—Haurrak! haur handiak!

KATTALINEK.—Hots, ama, badut uste minatxa²¹ xorta bat ongi guretua dukegun! Gaurkoak bezalako izialdura eta jostetek khalda²² eman ere daukute. Eta gero, ni segurik, buruaren gaineko nere argiak mihiscari su eman beldurrez, ifritua²³ nindagon... (Pitxerretik, hirri eta hirri, edaten dute orok, salbu Xobadinak, eta gero, guziak, ematen dira kantuz.)

KATTALINEK.—Zintzurak goxaturik, goazen orai... Kan-
tuño bat, oherat zinez eta egiazki joan baino lehen.

Gure herri xumetan²⁴

Zenbat hitz-untzi!

Zinez ala jostetan,

Oro erasi!

Gaixto nahasi!

Beha daude nor zertan

Hobendun kausi,

Nori phitz auzi;

Deus ez nahiz bertzetan

Onik ikusi!

(Berriz)

Tra la la, tra la la, tra la la la...

① ELHEKETA: ASTE HONTAKO ELHEPIDEA

1. Kattalin

2. Xobadina

3. Besteak eta berazke Luixa.

③ ADITZ IKASKUNTZA

31 Lokhart ditezten 32 Jainkoak dauka

33 Guretua dukegun 34. Xipetua nindagon

31 IZAN. Subjuntif Present.

Ni izan nadin = Que je sois

Hi " hadin = Que tu sois

Zu " zaiten (zaitezen) = " vous soyez

Hura " dadin = Qu'il soit

Gu " gaitezen (gaiten) = Que nous soyons

Zuek " zaitzeten = " vous soyez

Heiek " daitezen (ditezten) = Qu'ils soient

32 UKAN. Con. à dble complément.

Indicatif Present.

Objet sing. Compl. indirect pluriel

Guri = à nous -

Zuk daukuzu = vous nous l'avez

Harek dauku = il nous l'a

Zuek daukuzue = vous nous l'avez

Heiek daukute = ils nous l'ont

Objet pluriel - Compl. indirect pluriel

Zuk dauzkiguzu = vous nous les avez

Harek daukigu = il nous les a

Zuek dauzkiguzue = vous nous les avez

Heiek daukigute = ils nous les ont

33 UKAN - Potentiel Present. Obj. Sing

Hi duket = je puis ou je dois avoir

Zuk dukezu = vs pouvez ou vs devez avoir

Hi dukete = il peut ou il doit avoir

Gu dukete = nous pouvons ou nous devons av

Zuek dukezu = vs pouvez ou vs devez avoir

Heiek dukete = ils peuvent ou ils doivent avoir